

## **EUSKO IKASKUNTZAK BERE 18. KONGRESUAREKIN OSPATUKO DU MENDEURRENA**

*1918an sortu zenetik, Eusko ikaskuntzaren 17 Kongresu antolatu dira, bi helburu nagusirekin, euskal kultura eta ikerkuntza sustatzea, eta Euskal Herriaren erronka eta beharrei buruzko prospekzioa egitea.*

*Aurki, urrian eta azaroan, Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua elkartuko da, “Geroa Elkar-ekin / El futuro que nos (re)une / Notre futur ensemble” lemapean. Kongresuarekin batera, Eusko Ikaskuntzaren Mendurrena ospatuko da.*

*Biltzarrean, orain dela hiru urtetik hona bost gai estrategikoren inguruan garatzen ari diren lanen emaitza aurkeztuko da. Bost proiektuak dira:*

- *Nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea*
- *Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen*
- *Gure jendeak: Gizartea eta Kultura*
- *Garapen sozio-ekonomikoa*
- *Gobernantza demokratikoa*

*Gure Elkartek, Arizmendiarrrietaren Lagunak Elkartek, “Garapen sozio-ekonomikoa”-ren proiektuan jardun du.*

*Kongresua abiarazteko ekitaldia Baionan egingo da, urriaren 5ean, eta klausura Oñatin izango da, azaroaren 23an; bertan, aipatutako bost proiektuen emaitzak batuko dira.*

*Arizmendiarrrietaren Lagunak Elkartea Eusko Ikaskuntzako bazkidea da, eta, hori, halaber, gure Elkarteko bazkidea da.*

*Horregatik bidali digute Eusko Ikaskuntzatik Kongresuaren programa, eta ALEtik bertan izena ematera gonbidatzen zaituztegu.*